

Donostian mila bederatzireun eta berrogetamabigarren urteko Orrila'ren ogetamarrean, Ekauta-jauregian, Irigaray jauna maipuru dala ta Gorostiaga, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Mitxelena urgazlea dagozala egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deitutako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzarraren agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Urrengo adierazo da, Villasante euskaltzain jaunaren sarrera ospatzeko, Bizkai-ko Ekautaren jauregian, Jakintza-Batzordearen gelan, Orrila onen ogetairuan eginda-ko batzar nagosian aitatutako Euskaltzain barriari erantzunik Krutwig euskaltzainak irakuri eban itzaldia dala-ta, batzar orretara etorri ziren agintari batzuk naigabe ta aserrea erakutsi dabela, ta euren eritziz Euskaltzaindiak egoki deritxona erabagi bear leukela eskatu dabela. Zer erabagi leiteken ondo ebazteko aitaturiko itzaldia entzun ez eben euskaltzainak ezagutu ta guztiok ondo aztertutea bear izango leitekela-ta, ije-ki bat Oleaga jaunak eskatu ta urrengo batzarrerako ekarri dagiala ebatzi da.

Gero, Durangoko Endore jaunaren idazki bat irakurri da. Diño datorren Bagila-Garagarrila-ren ogetazortzi ta ogetzabederatzian Pablo Pedro Astarloa euskal-izkuntzelari ospetsuaren jaiotzaren berreunurteurrena dalako Uri atan jaiak egingo direala ta Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dabela, Euskaltzain baten itzaldi bitartez. Pozik artzen da eskari ori ta Gorostiaga Euskaltzain jaunaren gain ezartzen da ardura ori. Olan esan bekio Durango'ko Endoreari.

Azkue ta Saint-Pierre euskaltzainen oriotzak dirala-ta, Euskaltzaindiaren dagozan uts biak betetako, izen oneek erakusten dabez euskaltzain batzuk: Luis Mitxelena Elissalt, Plazido Mugica A. S. J. Abbé Jules Mulier ta Jean Ihartze. Urrengo batzarre-rako izten da erabagia.

Azkenez, Jaurisaila edo jagola-batzordea euskaltzain oneen lepora bego: Goros-tiaga, Oleaga, Villasante, Laffitte ta Dassance.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga